

buruz, aita santuak apezpiku guztiei buruz dutena, etab. adierazteko erabili ohi da.

Historian zehar estatu bakoitzeko apezpikuen artean *primatuak eduki ohi zuen sarritan gaientasun espezifikoa edo primatutzia; baina gaur ohorezko titulu hutsa izatera bihurtu da hori.

Ik. Aita santua.

Gainbeheraren teoria

Etnologiako eskola historiko-kulturalaren barruan, bereziki aita Schmidt-en erlijioaren bilakaera historikoari buruzko teoria da: horren arabera, erlijioaren sorburuan *monoteismoa dago, Jainkoaren lehen alditako goi-agerkunde delakoaren eraginez ezarria; gerora, berriz, gizadia munduan zabaldu eta Herritan banatu zen neurrian, zenbait Herrik eta gizartek galdu egin omen zuen errebelazio garbi hura, *animismora eta *politeismora lerraturaz. Baina lehen alditako beste Herri batzuk gorde egin omen dute garbiago edo kutsatuago hasierako monoteismo hura.

Ik. Lehen alditako goi-agerkundera; Agerkundera; Erlijioen historia.

Gainegitura

Marxismoaren erlijioarekiko kritikaren arabera, hori produkzio-erlazioen eta egitura ekonomikoen ondorioa da, eta gizarte klasistako harremanak zurikatze gainegitura ideologikoa.

Ik. Kritika (Erlijioarena); Herriaren opioa; Ideologia.

Gaitzespena

Egiteren bati buruz ematen den okerrera-ko eritzi edo epaia, hura onartezintzat eta kaltegarritzat joz. Onespeneraren aurkakoa da.

Ik. Anateia; Madarikazioa, 2.

Gaixoen oliadura

Gaixoen oleazioa ere esaten da.

Eliza Katolikoan eta Ortodoxoan *sakramentu-takoa bat da. *Liturgiaren azken eraberrikuntza arte, hiltzerian zeudenei ematen zien Eliza Katolikoak; orain, berriz, hiltzeko arriskuan zaharturik edo gaixorik daudenei, nahiz eta arrisku hori ez izan hurbilekoa; horrela egin izan dute ortodoxoek ere; horiek enkelaion deitzen dute, eta elizan egin ohi dute errittoa.

Honetan datza *errittoa: olio santuarekin apaizak gaixoaren gorputza igurtzitzen du, zenbait aldetan; orain, bekokian eta eskue-tan bakarrik.

Oliaduraren ondorioa: bekatuena barkamena, eta gaixoari osasuna ala eritasuna eramateko idarra ematea da, kristau-teologiaren arabera.

Lehenago azken igurtzia zeritzan errittoa horri.

Gaizbidea

Ik. Erorbidea.

Gaizkiaren arazoa

Gaizkia esatean, zera adierazten da: gaitza, oinazea, atsekabea, beldurra, nekea, etsipena, eritasuna, heriotza. Guzti hori da gizon-emakumeek munduan eta beren bizitzan nabari duten esperientziaren alderdi funtsezkoa. Arazo larri gisa nabari izan dute filosofoek eta teologoek gaizkiaren izana eta eragina.

Estoizismoak ezik, beste filosofia eta erlijioek ez dute onartu giza bizitzaren eta munduaren osagarri normaltzat esperientzia hori, eta saiatu dira gaizkiaren azken jatorria, zergatikoa eta zertarakoa argitzen. Galdera horietxek definitzen dute, hain zuzen, gaizkiaren arazoa.

Galdera berdintsuei erantzun edo argibide ezberdinak eman dizkie, irakaspide ezberdinen arabera.

Herri antzinakoetan eta primitiboetan munduan dabilzan demoniozko indar ezezagunei zor zaie munduko gaizkia, orokorki hartuta. Horregatik, horien sendabidea *magia da. Ik. Demonioak

*Zoroastrismoak Gaizkiaren izpirituari egozten dizkio munduko gaitz fisikoak eta psikikoak ere. *Konfuzianismoaren uestez, gaizki moral-etikoa eta fisiko-kosmikoa lotuta daude, Gizakiaren eta *kosmosaren ordena edo harmonia elkarrekin loturik dauden legez. Gizakiari harmonia horren arabera bizitzeak zoriona dakarkio; horren hausteak, berriz, gaizkia eta zoritxarra.

Budismoaren funts-funtsean dago gizakiaren zoritxararren eta munduko gaizkiaren esperientzia. Horren egiaztapena da lau egia jator edo nobleen lehena. *Dukkha deritza esperientzia horri. Horren iturburua zein den --tahna--, hori non gaingiditzen den --nirvana-- eta helburu horretara iristeko bidea zein den --bide zortzikoitza-- argitzea da, hain zuzen, *budismoaren irakatsi osoa funtsean. Ik. Lau egia jatorrak.

Indiako pentsamenduaren --bereziki *hinduismoaren eta budismoaren-- arabera, *karma-n gatzatzen da gaizkia; hori, berriz, gizaki bakoitzaren bizieraren eta jokabide moralaren jalkina da, berraragitzapen-katea-

ren eragilea. Karma garbituz joatea da giza bizitzaren helburua, *moksa-ra edo *nirvana-ra iritsi arte.

*Islamismoak ez du gaizkiaren argibide behin-betiko edo erabakiorrik. Jainkoak *determinismoaren eta gizakiaren erantzuletasunaren artean dabil. Dena dela, gaizkiak badu helburua, eta da, Allah-renganatzeko bideko probaldia.

Biblian ere oso bizia da gaizkiaren arazoa: Job-en liburuaren gai nagusia horixe da. Gaizkiaren iturburua, orokorki hartuta, lehen gurasoen bekatuan dago, aurretik zuten zorioneko pradisua galdu bait zuten, Jainkoaren kastigu gisa. Norberaren *bekatuak norberaren bizitzako gaizkian duen erantzuletasunari buruz bilakaera gertatu zen Itun Zaharreko irakatsian. Job-ek ukatu egiten du eranzuletasun pertsonal hori, eta bere zoritxarrak eta oinazeak Jainkoaren probatzat hartzen ditu, Harengan bere uste osoa ipiniz. Ik. Jatorrizko bekataua.

Kristautasunak Itun Zaharrak ematen duen gaizkiaren iturburuaren argitasunak onartzu, horren zentzua Jesukristoren gurutzeko heriotzean aurkitu uste du: gizon-emakumeen bekatuak eta munduko bekatuak bere gain hartu bait zituen, horietatik gizadia eta mundua ateratzeko. Kristoren heriotzaren eroskunda-balioaren arabera, kristau-tradizioak oinazeari, bereziki martirioari, eta jasan beharreko gaitz eta zoritxarrei antzeko eroskunda-balioa ematen die. Ik. Eroskunda; Martiria.

Laburbilduz, gaizkiaren azken jatorria jarri izan da:

- Naturaz-gaindiko indar demoniozkoetan: orduan *magiaz baliatzen da gizakia gaizkia uxatzeko. Ez da galdetzen horren zergati-koaz.

- Gaizkiaren izpirituagan: orduan giza-kia iturburu horrek Ongiaren izpiritu edo iturburuarekin daraman borrokoaren barruan gertatzen da nahasturik. Ik. Ongia eta gaizkia.

- Jainko kreatorre on, eta ardura-ono-koagan: eta orduan galdera da: zergatik? Zertarako? Bekatuaren kastigua edo gaizki moralaren ondorioa dela; gizona errugabearen gaitzak? Honelakoetan gizakiaren erlijiozko jarrera Jainkoari *otoitza eta *opariak egitea da.

Beti ere mila galdera gelditzen dira, *misterioan ezkatutak, edonolako azalpen ematen delarik ere. Gaizkiaren jatorria *pau-ituari egozten dizkionak ihes egin nahi die galdera guzti horiei eta etsipenez pautuaren aurrean makurtu egiten da.

Erljio batzuk bereziki Indiakoak eta Urruneko Ekialdekoak, ez dira hainbeste gaizkiaren azken iturburuaz kezkatzen eta bai gizakiaren beraren hurbileko esperien-tziaren argibidea emateaz. Alde horretatik hiru iturri behintzat aipa daitezke:

- *Bekataua (Biblia)
- *Irrika (tahna) (budismoa)
- Ezjakintasuna eta irudipen hutsa edo iruzurra (hinduismoa; budismoa; plato-nismoa).

Gaizkiaren argibidea ematea ez da nondi-koari eta zergatikoari erantzutea. Gaizkia- ren onerako aldea argitzen saiatu dira hain- bat erlijio: Job-ek, eta haren ondoren kris- tautasunean ere bai, Jainkoaren *probal- ditzat hartzen dute; beste xedea, erlijioetan agertzen dena, zera da: hezierarena. *Salba- menerako edo *askapenerako bidean aurkitzen diren ostopoak gaingintzeko heziera-oalioa edo alde ona du orduan gaizkiak.

Bide horretatik, balio aszetikoa ematen diote gaizkiari zenbait erlijioetan eta oina- zeak eta *hildura bilatu ere egiten dituzte: grina txarrak menperatzeko edo Kristo guru- tziltzatuarekin bat egiteko (kristau-aszeti- kak eta mistikak), irudipenezko eta iruzu- rrezko munduari ihes egin eta goi-jakindu- riarira iristeko (budismoa eta hinduismoa); materia gaiztoa eta izpiritu ona bereizteko (*gnostizismoa).

Inolako erlijioek eta filosofiak, gaiz- kiaren arazoaren argibide errazional egoki- rik eman ez badu, gutxiago lortu du gaizkia mundutik eta gizon-emakumeen bizitzatik ken- tzea. Gehienik ere, horren *sublimazio teo- logikoa lortu dute.

Dena dela, tinko dirau gizakiaren berez- ko gohaindura eta kontrajarrera gaizkiareki- ko. Berezkoa du, baita ere, oinazea eta gai- tza uxatzearen edo gutxitzearen aldeko aha- legina. Horien helburu onak aitortzeaz edo alde onetaz baliatzeaz at, badirudi giza jokabidea dela, gaizkiaren aurka borroka- tzea, horren muga aldenezinak norberaren gain hartuz.

Ik. Eritasuna; Beldurra; Heriotza; Pobreta- suna/Aberastasuna.

Paulo Agirrebaltzategi

Gaizkilea (Gaizkina)

Ik. Sorgina, 2; Deabrua.

Galikanismoa

Teologiazko *irakasbidea, joera politiko bati lotuta, Frantziako Elizaren organizazio nazionalari eta eskukotasunari eutsi nahi